

Nominen Atalean 2024ko abuztuaren 1a baino lehen aurkeztu beharreko dokumentazioa, negociado.nominas.funcionarios@navarra.es posta elektronikoan

Oharra: Hezkuntza Sailarentzat berriki lan egin baduzu, zure datuak ditugu. Eguneratu nahi ez badituzu, gaur egun sisteman daudenak erabiliko ditugu. EZ da beharrezkoa dokumentazioa berriro bidaltzea.

- **NOMINARAKO BEHAR DEN INFORMAZIOA:** Nafar Gobernuako Hezkuntza Sailan lan egin ez duten edo, lan egin arren, datuak eguneratu nahi dituzten langile guztiek bidali beharrekoa: [Inprimaki hau](#) bidali beharko diguzu posta elektronikoz.

Deialdi honen aurretik ere funtzionario bazara, jakinarazi behar diguzu (formularioak badu horretarako lauki bat) zein gizarte-aurreikuspeneko erregimenetakoa zaren gaur egun:

- a. MUFACE (osasun-laguntza) eta Estatuaren pasiboak (erretiroa)
- b. MUFACE (osasun-laguntza) eta Gizarte Segurantza (erretiroa)
- c. Gizarte Segurantza (osasun-laguntza eta erretiroa)

- **PFEZren BORONDATEZKO ATXIKIPENA:** Borondatezko ehuneko bat adierazten ez bada, automatikoki dagokiona aplikatuko da, Hezkuntza Sailak 2024an ordaindutako ordainsarien arabera. Ehuneko automatikoa borondatezkoa baino handiagoa bada, automatikoa aplikatuko da.
PFEZren borondatezko atxikipenaren ehuneko bat eskatzeko, horri uko egiteko edo aldatzeko, mezu elektroniko bat bidal dezakezu.

- **FAMILIA LAGUNTZA:** Seme-alabengatik familia-laguntza edo ezgaitasunen bat duen seme-alaben familia-laguntza, edo diru-sarrerarik jasotzen ez duen ezkontide edo bikotekide egonkorren familia-laguntza eskatzeko, estekako inprimakia bidali beharko diguzu, bertan adierazten den dokumentazioarekin, posta elektroniko berera. Laguntza hori eskaera jasotzen denetik aurrera kobratuko da.

- **BIZITZA- ETA ISTRIPU-ASEGURUA:** Nafarroako Gobernuako langile gisa, hurrengo [baldintzak](#) dituen bizitza- eta istripu-asegururako eskubidea daukazu. Legezko oinordekoen ordezkari batzuk onuradun izendatu nahi badituzu, edozein unetan egin dezakezu, erregistro elektroniko bidez [eskaera hau](#) helaraziz.

- **ANTZINATASUNA KOBRTZEA:** 2009ko urriaren 15etik aurrera Nafarroako Gobernuarentzat emandako zerbitzuak ofizioz hartuko dira kontuan. Aurretik aitortuak izan ez direnak edo beste administrazio batzuetan emandakoak onartu egin beharko dira. Horretarako, zerbitzuen ziurtagiria/I. eranskina (JATORRIZKOA) aurkeztu beharko duzu erregistro elektronikoaren bidez (Araubide Juridikoaren Zerbitzuko Administrazio Kontroleko Atalari zuzenduta).

Ordainsariei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/informacion-laboral-rrhh/retribuciones>

Nomina eta Gizarte Aseguruekin harremanetan jarri behar baduzu:

negociado.nominas.funcionarios@navarra.es

848 42 65 25